

## Jarduera

<b>EGILEA:</b>	IES Astrabudua BHI
<b>HERRIALDEA:</b>	Euskal Herria
<b>IZENBURUA:</b>	Gure elikagaien jatorria
<b>IKASLEEN ADINA:</b>	14-15          urte
<b>GAIAK:</b>	Natur zientziak, Baloreak eta Euskara.
<b>IRAUPENA:</b>	6                  ordu

### Helburuak:

- Sasoiko eta bertako produktuak kontsumitu eta ezagutu.
- Elikagaiak erosi baino lehen ingurumenean dituzten ondorioak zeintzuk diren ondo pentsatzen ikasi.
- Elikagaien jatorria ezagutu.
- Dagokigun sasoiko elikagaiak topatzen ditugun kontrastatu.
- Erosketa bat egitean erosten ditugun produktuen jatorria ezagutu eta horren ondorioen kontzientzia hartu.
- Ikasle talde ezberdinekin lan egiten ikasi.

### Jarduerak:

Denboraldia	Jardueraren deskribapena
1. saioa	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gaiaren aurkezpena.</li> <li>2. Bikoteka eztabaidatu zer dakiten elikadura jasangarriari buruz, zer den ...</li> <li>3. Taldeari azaldu komentatutakoa.</li> <li>4. Elikadura jasangarriari buruzko bideoa ikusi.</li> </ol>
2. saioa	<p>“PUZZLE” dinamika kooperatiboa erabiliz taldeak sortu eta gure supermerkatuetako 3 elikagai ezberdinen informazioa bilatu: jatorria, zenbat km egiten dituzte eta nola etortzen diren gure herrietaraino, zein pestizida botatzen dizkiete, CO2 isurketa, ekoizpen herrialdeetan eragina...</p>
3. saioa	<p>“PUZZLE” dinamikarekin jarraituz adituen batzarra egin. Elikagai ezberdinak bilatu orde, talde ezberdinetan bildu eta gai ezberdin batean zentratu: km-etan, herrialdeko eraginean...</p>



4. saioa	“PUZZLE” dinamikarekin amaitzeko berriro bildu hasierako taldeetan (elikagaien taldeetan), informazioa partekatu eta elikagai bakoitzarentzako bokata bat egin, hau da, elikagaiak hitz egingo balu bezala azaldu egingo du bere egoera.
5. saioa	Taldeko elikagaiak bildu eta hauek mozorrotu bere jatorriko herrialdeko jantziekin, gero argazkia atera eta aurreko saioan egindako bokata gehitzeko.
6. saioa	Software librea daukaten argazkiak bilatu Interneten eta “Picsart” programaren laguntzaz argazkiak elkartu.

### Materialak eta ekipamenduak:

- Ikasle bakoitzeko ordenagailu bat internetera konektatua.
- Arbela digitala.
- Folioak
- Supermerkatuko elikagai ezberdinak
- Errotuladore zein margoak.

### Irakaskuntza-tresnak:

- PUZZLE dinamikaren azalpena:  
<http://diversidad.murciaeduca.es/tecnoneet/2010/docs/jmartinez.pdf>
- Elikadura jasangarriari buruzko bideoa:  
<https://www.youtube.com/watch?v=mrkyU9FA4vw>
- Argazkiak editatzeko programa:  
<https://picsart.com/>

### Eztabaidarako galderak:

- Ba al dakizu zer esan nahi duen elikadura jasangarria?
- Nondik datoz gure supermerkatuetan dauden elikagaiak?
- Nola ekartzen dituzte gure supermerkatuetaraino (garraiobidea eta modua)?
- Ezagutzen al ditugu sasoiko produktuak? Zergatik?
- Zein kalte dauka elikagaiak hain urrunetik ekartzea?
- Zein onura dauka elikagaiak hain urrunetik ekartzea?
- Nola da posible sasoikoa ez dena dendan aurkitu ahal izatea?



## Iradokitako ebaluazio tresnak:

Ikasleek jarduera ebaluatzeko, bakoitzak email pertsonal bat bidaliko dio irakasleari jarduera osoari buruz, talde lana zer iruditu zaion, tailerra, posterra egitea...

